
BALENDIÑE ALBIZU,

EUSKAL OLERKARI

Euskalerrian ba-doguz, beste edozein alderditan lez, emakumeen artean diñot, neurtitz dotore bikaiñetan idazten dabenak, euren biotz eta adimen-sorpenak txukun-txukun adierazten alegitzen diranak. Oneitakoa dogu egunokaz, Karakas'tik etorrita, ni ikusten urreratu dan •Balendiñe Albizu andrea. «Emakume, ama, olerkari... Iru itz gozo. Irurak elkartuta, Balendiñe», diñosku norbaitek.

Bizitz-zeaztasunak.— Gaur Karakas'en bizi dan arren, zumaiarra dogu emakume argi au, eta berak kontau eustanez, interesgarriak dira bere bizitz-atalak.

«Zumaiko erri politean jaio nintzan —esaten daust—, 1914'garren urteko iraillaren 18'an. Nere ama, Manuela Aizpurua, Endañeta base jaio zan, eta aita, Juli Simon Albizu, Zumaikoa, itxas-gizona, patroï bulartsua, itxasoarekin amaika burruka egindakoa. On eta leiala, zintzo jokatu zuan bere bizitzan. Ama... esan leiken dena da gutxi nere amagatik. Ain zan ona! Goxo samur maitekor azi zituan bere sei seme eta ni alaba bakarra, zazpi. Maitatua nintzan, nola ez! Nere aurtzaroaz beiñere baiño geiago gogoratzen naiz gaur; zoriontsua izan zan, aberastasunik ez ba'gendun ere. Maitasuna eta eguneroko ogia etzan faltatu izan beiñere gure etxean. Azten ari giñan bezela nere gurasoak seme-alaba on, jator eta zintzoak azi eta ezi zituzten. Arro esan dezaket au. Bai orixe!».

Bere gazte-denpora odei baltz bage igaro eban. Anai-arreba guztiak abertzaleak ziran, eta abertzaletasunak eskatzen dauana beteten ekienak; batzokiko egin-bearrak aurrera eroaten ez ziran atzean gelditzen. «Onelaxen —diño— geure artean pozik bizi giñan gerrako egun madarikatu ura eldu ta guziok sakabanatu giñuzten arte».

Gerreak bai makiña bat euskaldun leial sakabanatu zituan, ekaitz aize-zirimolak ostu bellegituak lez. Agorraren 24'an urte eban Balendiñe'k Zumaia'tik bere anaiakaz. «Itxas-ontzi batean,

denak gizaseme, ni bakarrik neska» diñosku berak. Ondarru'ra eldu ziran gaberako, eta gizonezko arei «gaba igarotzeko neretzat itxasontzia toki egokia zanik» ez iruditzen-eta, etxe batera eroan ebezan bera ta bere anai txiki Karlos.

Urrengo gabea, «facistak» an zirala begitandurik, zalaparta ez txikia sortu ta neskatxaren nebak oni dei egiteko astirik bage, Ondarru'tik aldendu ziran. Balendiñe an geratu zan noraezean, zer egin ez ekiala. Baiña, ontan, Ondarru'ko zubi gaiñean jarrita egoala ona nun entzuten dauan berebil baten galga-otsa, eta batbatean «Balendiñe!» deia. Ixaka Mendizabal zan, Balendiñe'ren ezaguna. Anaiakaz zer jazoten yakon eta aurrera jarraitzeko asmorik ez eukala esan eutsanean, Ixaka'k erantzun eutsan: «Ez, arren, olakorik!» Bera Bilbo'ra joian eta «kon egin nindun berakin Bilbo'ra jun nadin».

Ondoren berak: «Bilbo'n ba-nekien otel Euskalduna'n Tolosa'ko lagun batzuk zeundela eta ara abitu giñen; poztu ziran aiek ni ikustean eta beraekin gelditu nintzan. Lau egun igaro ta nere anaien barririk ez; egun ontan «Sabin Etxea»-n bazkaltzen ari giñela ezagutu nuen Mundaka'ko Junta munizipaleko lendakari ta Tolosa'ko lagun laguna zen Juan Manuel Bilbao. Mundaka'n, nai ba'nuen, lana izango nuela esan zidan, Asistencia Sozial'ean edo, eta bi bider pentsatu gabe Mundaka'ra jua nintzan. Antxe igaro nuen guda denbora, arik eta Bilbo'ra naitanaiez jua bearra eldu zitzaigun arte».

Bilbo galdu ta Santander aldera jo eban Balendiñe'k beste askorekin. An, Eusko Jaurilaritzaren etxean ezkondu zan Mundaka'ra eroan eban Bilbao mutillagaz. Ribadesella'tik joan ziran Frantzi'ra, Bidarte'n, «Larrosera»-n, Euzkadi'ko Jaurilaritzak gaixoentzat eukan etxean egokiturik. Emen jaio yakon bere lenengo seme Josu, 1939-XII-12'an. Geroago, Marsella'tik urten eta Venezuela'ra jo eban beste askogaz, 1943'garren

urtean Ciudad Bolivar'en bizi izaten jarririk. Emen urte bi emonda, Caracas'era jo eban, eta ementxe bizi da gaur, lenengotan otel baten jaube zala ta orain aspalditik olako buruauste barik, atsedean patxadazkoan.

Lau seme-alaba daukaz, batzuk ezkonduak eta beste batzuk karrera ikasten. Maite dau bere jaioterria ta al dauan guztietan onuntz jo io dau illabete batzuetarako. Berton daukazan adiskideak agurtzea eder yako, baiña ez bere erriak gaur daukan egoera larria. Euzkadi bakean, alkar-maitasunean, langille ta zoriontsu ikusi nai dau.

Olerkari.— Soñez ez, baiña arimaz urduri dozu Balendiñe. Jainkoak, bere erriak eta familiak kezkatzen dau oso. Bakarrik lez ebillen munduz mundu; bere ama an geratu zan Zumaiia'n, itxas egalean, alabaren oroiz mindua. Eta aita, bere aita ona! Benetan samiña, gazte

erria itxi bearra! Ondoan zituan senarra ta umetxoak; baiña orrez gairi ba-ditugu beste biotz-zati batzuk be...

Guzti onek, oster, gu olerkari biurtzen. Utsune bat dogu barnean, eta utsune ori zerez beteten? Barruko zer ori ornitzeko, olerkiari emon eutsan zumaiar andra zintzoak. Onela diño berak «Olerkia» deritxon lantxoan:

Sarritan nere baitan	Nere biotza askotan
auxe det esaten,	egoten da egarri,
zuregatik ez balitz	zure iturrian det
zer egingo nuken!	ur gozo ugari.

Zer ete da olerkia? Esanda daukat: «Barne garraxia». Eta Balendiñe'ren olerkiak, lau-lau ta zentzunez osotuak, barne intziriak dira. Au be egoki datorkigu: Ori'ko txoriak Ori'ra egaz. Orobat onek be, bere sorterrira egaz: Euskalerritik urrun aurkitu arren, aren begiak, aren oivak onantza datoz. Itxas-orratzak iparrera aier.

Noiztik dogu olerkari? Berak onela: «Ciudad Bolivar'en negoela olerkiari eman nion. 1944 urtean Caracas'ko Eusko Etxea'n, euskal idazleen sariketa zala-ta, «Nere urtearen lau aldiak» bialinuen sariketa ortara. Beste askoren artean Jon Andoni Irazusta ere sartu zan sariketa artan eta oneri eman zioten lenengo saria, eta neri bigarrrena. Euzkadi aldizkarira nere olerkiak bialtzen jarraitu nuen ».

Baita argitaratu zituan bere olerkiak Sabindarrak argitaratzen eben «Irrintzi» aldizkarian be. Gaur oraindik ango «Euzkadi»-n azaltzen dira zumaiarraren bertso lanak. «Euzko Deia» irrattian be ez ditu saio gitxi egin, or-emen emonak ditun itzaldi ta alkar-izketa gozoak aitatu barik itxita be. Caracas'en euskal kutsuzko zer-edo-zer ospatzen danean, an esku-artuko dau gure Balendiñe'k be. Emakume maratx aiurri onekoa.

1972'an, or-emen sakabanaturik ebiltzan poesi egalaria kaz eta labatik arako beste batzukaz, «Nere Olerki Txorta» deritxon kopla-liburu atsegiña argitara emon euskun. Zarautz'eko Itxaro irarri eban German Azurmendi'ren azal

eta Irizar'tar Sabin'en itzaurrez apainduta. «Gazte-gazterik bere sorterri maitea utzi bearra izan zuan..., geroztik, bidezkunde luzea asi zan beretzat. Euskalerrri ta atzerri makiña emakumea. Biotz xamur ta esku zabaleko emakumea. Beti agirian ditu euskal oiturak, naiz ta Euskalerritik urrun arkitu. Balendiñe'n etorria, ez da nola-naikoa, ta bere oarke-tak sakon ta mamitsuak dira benetan». Aren olerki samur, guntsu ta errezak irakurri ondoren, nik be Irizar'en eritxia onesten dot osoosoan.

Otoz-otoko edozein gauzaren aurrean dardar egin oi dau biotzak. Eta dardar orreik, garraxiak dira Balendiñe'ren olerkiak. Lau zati daukaz «Nere Olerki Txorta»-k; gomutapenak dira lenengo zatikoak, bere ama, bere erria, jaiak, senideak; ipar eta egoaldetik, ango eta emengo gizonak eta jazokunak abesten ditu; nere biotzeriak, amesak eta maite-miñak datoz sail onetan, Heine ta Campoamor'en idazkera sotillean; gogoketak azkenez, bere adimen argiak emondako frutu elduak.

Ezin ukatu daikegu amaren, urrun aurkitzen dan amaren gomuta. Balendiñe'k «Zure oroiz, ama!» deritxon lanean bipilki kanta eban., 1944'garren urtean.

Ainbeste urte zu ikusi gabe
gizon gaizkilleen lana,
baña nere biotzaren jabe
zu zera, nere ama laztana!
Itun aldietan ikusten zaitut
eta esaten didazu: «Ene alaba!
zuregatik otoi egiten
igarotzen ditut egun ta gaba».
—Jarraitu, ama; otoi Jaunari.
Laster elduko da-ta eguna,
zure otoien laguntzen sari
guziok alkartuko gaituna,
Jaungoikoak zure eskari
danak, lortuko dituna.

Ba-dau beste txorta bat laster argitaratzeko, «tropiko lurriñez usaindua, Euskalerrri miñez erretua. Lore, lurrin, usai, asmo, biotz, amets, errimin, egamin... Eta irudimen egoetan, tropikotik Euskalerrri'runtz, Parnaso zear, ederrez asea », itzaurrean Arozena'tar Andoni'k diñoanez.

Aita Onaindia